

# IDEIA

Gure enpresa influenzerren lanen kudeaketaz arduratzen da, haiekin jartzen gara harremanetan egin beharreko publizitatea eta ekintzak antolatzeke, haiek jendea mugitzeko duten gaitasuna, modu egoki batean bideratzeko.

Antolatzen ditugun jardueren, ekitaldien, publizitateen eta lankidetzen bidez, gure bezeroak ezagunago egin nahi ditugu mundu mailan, eta, horrela, bere produktuen salmentan eragiteko gaitasun handiagoa lortuko dugu, horien bidez etekina ateratzeko.

Egokia iruditu zitzaigun enpresa hau sortzea influenzerren izenez ezagutzen diren pertsona horiei laguntzeko. Internetaren erabilera zabaldu zenetik, sare sozialen gorakada eman da eta honekin, sektore horren hazkundera; hau aprobetxatuz, pentsatu genuen ekitaldiak, promozioak eta publizitateak kudeatzen eta antolatzen lagunduko dien enpresa, etorkizunerako apustu ona izan zitekeela.

